

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Atal honetan gure produktua zein bezerori egokituko zaion definituko eta azalduko dugu, arrazoiak emanez.

Hasteko, gure aplikazioaren segmentazio mota txikia izango da, hain zuzen ere, Euskal Herriko biztanleria, baina gure produktua arrakastatsua bada, etorkizun batean, pixkanaka-pixkanaka mundu mailan ikusgai egingo dugu. Euskal Herria aukeratzearen arrazoi nagusia gu bertakoak garela da. Hortaz aparte, hemengo beharrak zeintzuk diren oso ondo dakizkigu, guri ere eragiten baitigute. Hizkuntzari dagokionez, gaztelera eta euskara erabiliko ditugu, horixe baitira hemen gehien hitz egiten diren bi hizkuntzak.



Bestalde, gure produktuaren erabiltzaile potentzialak 12 urtetik gorako euskaldunak izango dira. Honen arrazoi nagusia da, egungo gazteak geroz eta lehenago hasten direla gailu elektronikoak menderatzen, hori dela eta, gai ikusten ditugu aplikazio hau erabiltzeko. Gainera, momentu honetan askoz kontzientziatuago daude aldaketa klimatikoaren garrantziaz, eta guk sortutako App-aren existentziaz jabetzen direnean, erabiliko dutelakoan gaude.

Hortaz aparte, helduagoak diren pertsonak, mugikorrekin zailtasunak izaten dituztenak, erabili ahal izango dute, aplikazioaren erraztasunari esker gai ikusten diegulako TRASHOUT erabiltzeko.

Aplikazioa edukitzeko baldintza bakarra mugikor bat izatea da, zeinak beste App batzuk jaisteko ahalmena duen. Gaur egungo mugikor edo tresna teknologiko guztiek dutenez aukera hau, ez da zailtasunik izango inorentzat.

